Txostena
Memoria

FORU FUNDAZIOAK / FUNDACIONES FORALES

JC Arriaga Fundazioa
Fundación J.C. Arriaga

Fundación Juan Crisóstomo de Arriaga-Orquesta Sinfónica de Bilbao / Juan Crisóstomo de Arriaga-Bilbao Orkestra Sinfonikoa Fundazioa, euskal sektore publikoko Fundazio bat da, Bizkaiko Foru Aldundiari atxikia.

Bizkaiko Foru Aldundiak eta Bilboko Udalak eratu zuten, Bilbon, 2007ko apirilaren 20an, Jose Antonio Isusi Ezcurdi notarioaren aurrean egiletsitako eskritura publikoaren bidez (protokolo-zenbakia: 1.402).

Eskritura publiko horren osagarri, 2007ko abenduaren 28an beste eskritura publiko bat (4.477 protokolo-zk.) egiletsi zen notario beraren aurrean.

2008ko apirilaren 14an, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuaren 2008ko martxoaren 4ko Agindua argitaratu zen. Agindu horren bidez, Juan Crisóstomo de Arriaga- Bilboko Orkestra Sinfonikoa fundazioa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatu zen egun horretan, **F-223** erregistro-zenbakiarekin. Fundazioa, helburu sozialaren arabera, kultura-fundazioen epigrafearen barruan sailkatu zen, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan xedatutakoaren arabera.

2018ko ekainaren 18an, Patronatuak Fundazioaren Estatutuak aldatzea erabaki zuen, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legera egokitzeko. 2019ko otsailaren 27an, EHAAn argitaratu zen Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2019ko urtarrilaren 25eko Agindua, Estatutuen aldaketa hori Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzen duena.

La Fundación Juan Crisóstomo de Arriaga-Orquesta Sinfónica de Bilbao / Juan Crisóstomo de Arriaga- Bilbao Orkestra Sinfonikoa Fundazioa, es una Fundación del sector público vasco, adscrita a la Diputación Foral de Bizkaia.

Fue constituida por la Diputación Foral de Bizkaia y el Ayuntamiento de Bilbao mediante escritura pública otorgada en Bilbao, el 20 de abril de 2007, ante el notario Don Jose Antonio Isusi Ezcurdi. (nº 1.402 de su protocolo).

Esta escritura pública fue complementada por otra escritura pública otorgada el 28 de diciembre de 2007 ante el mismo notario (nº 4.477 de su protocolo).

El 14 de abril de 2008, se publica la Orden de 4 de marzo de 2008, del Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social por la que se inscribe en el Registro de Fundaciones del País Vasco la Fundación Juan Crisóstomo de Arriaga- Orquesta Sinfónica de Bilbao, con esta fecha y bajo el número de registro **F-223**. Clasificando la Fundación, en virtud del objeto social, dentro del epígrafe de fundaciones culturales, conforme a lo dispuesto en el Reglamento del Registro de Fundaciones del País Vasco.

Con fecha 18 de junio de 2018, el Patronato acordó modificar los Estatutos de la Fundación para adaptarlos a la Ley 9/2016, de 2 de junio, de Fundaciones del País Vasco. El 27 de febrero de 2019, se publicó en el BOPV la Orden de 25 de enero de 2019, del Consejero de Gobernanza Pública y Autogobierno, por la que se inscribe en el Registro de Fundaciones del País Vasco dicha modificación de Estatutos.

JC Arriaga Fundazioa
Fundación J.C. Arriaga

Fundazioa irabazi-asmorik gabeko erakundea da, izaera iraunkorrekoa eta iraupen mugagabekoa, eta helburu du Bilbao Orkestra Sinfonikoa zuzentzea, mantentzea, zaintzea eta sustatzea, haren bitartez Bizkaiko herritarrek erlazioa izan ahal dezaten, beren egunerokoan, musikarekin eta musikaren alorrarekin. Hala izan dadin, kalitate bikaineko musikan eta antolakuntzan oinarritutako esperientziak prestatuko ditu, era guztietako entzuleei egokitutako eskaintza anitza taxutuz eta eragile aktiboa izanez inguruaren garapen kulturalean eta Bilboren eta Bizkaiaren nazioarterako proiekzioan.

Jarraian, azaldutakoa betetzen lagun dezaketen hainbat helburu zerrendatzen dira:

a) Bilbao Orkestra Sinfonikoa sustatzea eta mantentzea, haren jarduera artistikoa hobetuz eta bultzatuz.

b) Beste musika-talde batzuk, ganbera-orkestrak, hari-taldeak, haizekoak eta antzerakoak sortzea eta mantentzea.

c) Kontzertu sinfonikoak, ganberakoak, didaktikoak eta beste era batzuetakoak antolatzea eta gauzatzea, instrumentuen errepertorioari helduz eta euskal konpositoreak bereziki kontuan hartuz.

d) Bizkaian dagoen musika klasikoaren eskaintza koordinatzeko jardutea.

e) Bestelako adierazpen musikalak edota lirikoak antolatzea, horrelakotzat joz hezkuntza- edota prestakuntza-jarduerak eta ikerketakoak edota zabalkuntzakoak, jarduerok iraunkorrak izan nahiz ez.

La Fundación es una organización constituida sin ánimo de lucro, de carácter permanente y duración indefinida, que tiene por objeto: la dirección, mantenimiento, conservación y promoción de la Orquesta Sinfónica de Bilbao, a fin de que esta se constituya en un espacio relacional cotidiano de la ciudadanía de Bizkaia con la música y su entorno, mediante la generación de experiencias a partir de la excelencia musical y organizativa, ofreciendo una oferta diferenciada orientada a los diversos segmentos de públicos, y tomando un papel activo en el desarrollo cultural del entorno y en la proyección internacional de Bilbao/Bizkaia.

Se establecen para ello, y a título meramente enunciativo, los siguientes objetivos:

a) Promover y mantener la Orquesta Sinfónica de Bilbao, mejorando y potenciando su actividad artística.

b) Crear y mantener otros grupos musicales, orquestas de cámara, conjuntos de cuerda y viento y otros grupos semejantes.

c) Organizar e interpretar conciertos sinfónicos, de cámara, didácticos, y de otra naturaleza, siguiendo el repertorio instrumental, con una especial atención a los/las compositores/as vascos/as.

d) Promover la coordinación de la oferta de música clásica en Bizkaia.

e) Organizar cualquier otro tipo de manifestación musical y/o lírica, incluida la realización de actividades educativas y/o formativas, de investigación y/o difusión, sean o no estas de carácter permanente.

JC Arriaga Fundazioa
Fundación J.C. Arriaga

f) Fundazioaren helburuekin zerikusia duten edo horien osagarriak diren ekitaldiak antolatzea: lehiaketak, biltzarrak, topaketak etab.

g) Grabazioak eta argitalpenak argitaratzea.

h) Bekak, laguntzak edo sariak bultzatzea konposatzaile, orkestra-zuzendari, bakarlari, interpretatzaile eta koruentzat, batez ere agertzen diren musikako balio berriei zuzenduta.

i) Bilboren eta Bizkaiaren irudia zabaltzen laguntzea.

j) Bere helburuak lortzeko, Fundazioa elkarlanean aritu ahalko da bestelako erakunde publiko zein pribatuekin, eta horretarako behar diren lankidetza- eta babes-akordioak sinatu.

k) Helburutzat antzeko kultur adierazpenak sustatzea edo gauzatzea duen beste edozein jarduera osagarri, Fundazioaren xedearekin bat baldin badator.

f) Organizar todo tipo de eventos como concursos, congresos, encuentros, etc., relacionados y/o complementarios con los fines fundacionales.

g) Edición de grabaciones y publicaciones.

h) Promoción de becas, ayudas o premios a compositores/as, directores/as de orquesta, solistas, intérpretes y coros; sobretodo a los nuevos valores musicales que puedan surgir.

i) Contribuir a la proyección de la imagen de Bilbao y Bizkaia.

j) Para el logro del fin fundacional, podrá colaborar con otras entidades públicas y privadas firmando los oportunos acuerdos de colaboración y patrocinio.

k) Cualesquiera otras actividades complementarias, que tengan como finalidad la promoción o realización de manifestaciones culturales similares y compatibles con los fines fundacionales.

Urte honi begira, Fundazioaren helburu nagusia funtzionamendu-maila onari eustea da, bai bere jardueren aldetik baita kontzertuetara datozen entzuleen kopuruari dagokionez ere.

Jarduerari dagokionez, aurreko ekitaldian egindako kontzertuen kopurua gainditzea espero dugu.

Nolanahi ere, eta gure komunitatearekin konexio sendoak ezartze aldera, Bizkaiko Lurralde Historikoan kontzertuak egiten jarraituko dugu.

Publikoari dagokionez, aurreko ekitaldian izandako kopuruaren inguruan ibiliko garela uste dugu.

Durante el presente año, la Fundación tiene como objetivo fundamental mantener unos niveles satisfactorios de actividad y de público asistente a los conciertos.

En lo que a actividad se refiere, esperamos superar el número de conciertos realizados en el ejercicio precedente.

En todo caso, y en aras establecer conexiones sólidas con nuestra comunidad , seguiremos incidiendo en la realización de conciertos por el Territorio Histórico de Bizkaia.

En cuanto al público, prevemos movernos en parámetros similares a los registrados en el pasado ejercicio.

JC Arriaga Fundazioa
Fundación J.C. Arriaga

Pertsonal-gastuen atalean soldaten dagokion igoera aurreikusi da aurreko urtekoarekin konparatuz. Bestalde, aipatu soldatak esperientzia eta antzinatasunagatik dagozkien heinean ere igoko dira.

Aldi baterako pertsonalari dagokionez, soilik beteko dira ABEren ondoriozko bajak, eta kontzertuengatik hala behar denean, langile "estrak" kontratatuko dira.

Gainerakoan, joerak hobera jarraitzen du, eta alde horretatik, espero dugu datorren ekitaldian AENORen ikuskaritzak gure kudeaketa-sistemaren kalitatea berrestea UNE/ISO 9001/2000 arauen arabera

Bukatzeko, eta inbertsioei dagokionez, ondorengoak burutzea aurreikusten dugu:

- Informatikarako ekipoak: Hainbat informatikarako ekipo berriztatuko ditugu , zaharkituta geratu direlako.
- Besteak: Bulegoko altzariak, aulkiak, euskarriak, kutxak eta musika-tresna txikiak erostea aurreikusten dugu.

Dentro del capítulo de gastos de personal, se ha presupuestado el incremento correspondiente sobre las retribuciones del año precedente; las cuales se verán además incrementadas por el lógico deslizamiento de conceptos relacionados con la experiencia y antigüedad.

En cuanto a personal temporal, se prevé la cobertura de posibles bajas por IT, así como la contratación de “extras” de plantilla en los conciertos que así lo exijan.

En otro orden, la mejora continua y el crecimiento de nuestro sistema de gestión es un objetivo importante del ejercicio, confiando en que AENOR avale, un año más, mediante la correspondiente auditoría, nuestro sistema de gestión de la calidad según normas UNE/ISO 9001/2000.

Finalmente, y en lo que a inversiones se refiere, decir que prevemos las siguientes:

- Equipos informáticos: Renovaremos parcialmente el parque de equipos informáticos, por haberse quedado obsoletos.
- Otros: Se prevé la compra de mobiliario de oficina, sillas, soportes, cajas, y pequeño instrumental musical.